

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



Luzokerrak. Uztailetik luzoker okerrak (*Cucumis sativus*) jan ditzakegu. Tattarrak, bihurriak, itsusiak, trabesak, errenak, makolatuak, eriak, konkortuak, orinez oreztatuak, adabegitsuak, nekanez eta natuz josiak... Hitz batean, okerrak.

Uztailaren lehenarekin European saltzen diren 26 barazki eta fruta merkaturatzeko araudiak ezereztu dira. Orain artean hiru kategoriatan banatu izan dira saltzeko modukoak zirenak, "extra", "I" eta "II", hortik kanpokoak ezin saldu. Nahikoa zen okerdura pittin bat izatea, bi zaineko azenarioa edo alderakarga duen sagarra, zaborretara! Honek itxurakeria helburu nagusi izan duen ustiaketa sustatu du, eta kalitatea pikutara! Astakeria bat: azaluts zuri hau dela-eta milaka tona jaki alferrik galdu izan da. Hamar fruta eta barazkik besterik ez dute araututa jarraitzen, garrantzitsuenak, salmenten lautik hiru osatzen dutenak: sagarra, zitrikoak, kiwia, uhaza, muxika, udarea, marrubia, piper gozoa, jateko mahatsa eta tomatea. Horietan, hala ere, arauz kanpokoak ere saldu ahalko dira, horixe, arauz kanpokoak direla adieraziz baina.

Pagoaren kontabilitatea

LAGUN BATEK luzatu didan zalantza baten kotoizko harira nator. Kotoi transgenikoak sustatzen dituztenen enpresetan kontabilitatea izango da nagusi eta jarrera hortik beretik begiratu nahi diot, gaur, pago bati, *Fagus sylvatica*.

Haria: eraikuntza bat tarteko, pago eder bati sustrai batzuk kendu zitzaizkion eta urte batzuk igaro direnean azaldu dira ekintza haren ondorioak: zuhaitzaren ipurdian arda-gai ugari agertu da eta hostajea une batzuetan gorritu, ihartu eta soiltzen ari da. Zuhaitzaren eitea desitxuratzeaz gain, etorkizuna zalantzan du.

Adarretan barrena ibili beharrean sustraietara jota, zapuzte bidean jarri den pago hori, gutxi asko, ehunen bat urtekoa, hoguei metro garai eta hamabi zabal bada, honoko tankera honetako izango da haren kontabilitatea:

Lurpean, gainean duen beste hainbesteko edo zabalagoko eitea edo bueloa izango du. Beraren ageriko faktoria, argia jasotzeko 600.000 hostotan banatutako 1.200 m²-ko azalera izango du. Hosto hauetan egunero hamazortzi kilogramo CO₂ hartzen ditu, eta karbono hori lantzeko egunero 400 litro ur ponpatzen ditu lurretik. Itzelezko ola honek, egunero, bere bizitzarako erregai dituen azukreetatik dozenaren bat kilo ekoizten du, bide batez hamar lagunek bizitzeko behar dugun oxigenoa zabalduz.

Txarrenera jota pago hau galduko balitz, ez al da hala gertatuko, haren lan bera egiteko 2.000 zuhaitz gazte landatu beharko lirateke, hau da, 150.000 euroko gastua.



Pagoa, *fagus sylvatica*.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: Goizper Kooperatiba Elkartea

• Nekazaritzarako eta lorezaintzarako lhinztagailuak
• Potentzia transmisiorako osagaiak

Antigua Kalea, 4 • 20577 ANTZUOLA • Tel. 943 78 60 00 • Faxa 943 78 60 08 • www.goizper.com • goizper@goizper.com